

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Jendaurrean jartzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako higiezinaren gaineko zergaren 2017ko erroldak

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako higiezinaren gaineko zergaren 2017ko erroldak egin dira, eta jendaurrean jartzen dira hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko den erroldan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete igaro baino lehen.

Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izango dituzte, epe horren barruan, udaleko idazkaritzan, jendea atenditzeko ordutegian.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2017ko martxoaren 30a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA